



David Doblas saskibaloi jokalaria Mintzanet ezagutu zuen Donostiako San Telmo museoan egin zen Mintzodromoan. MARAMARA

Mintzanet webguneak hiztunak harremanetan jartzea du helburu, eta Mintzatuk, euskaraz egiten duten lekuak ezagutaraztea: Interneten abantailak euskararen zerbitzura jarri dituzte bi proiektuek.

## Baliabideei etekina ateratzen

**Maialen Unanue**

**E**uskaraz hitz egiteko inor ez izatea arazo izaten da maiz euskara ikasleentzat. Eta, hain zuzen, eskolatan ikasitakoak hortik kanpo praktikan jartzea da hizkuntza bat menperatzeko gakoetako bat. Teknologia berriak aprobetxatuz, Maramara taldeak Mintzanet proiektua abiatu zuen urtarrilean: euskara ikasleak eta euskara menperatzen dutenak harremanetan jartzen ditu, aurrez adostutako maiztasunarekin, Internet bidez euren artean hitz egiteko.

Mintzalagun egitasmoaren Interneteko baliokidea da Mintzanet. Elkarrizketak aurrez aurre egin beharrean, Internet bidez bideokonferentziak doan egiteko aukera ematen duen Skype bidez egiten dituzte: hori da aldaketa bakarra. Bidelariak eta bidelagunak dira figura nagusiak, Maramarako langile Cristina Tapiak azaldu duenez. Bidelagunak euskara ikasi nahi dutenei laguntzen diete: «Bidelariak, oro har, badaukite euskaraz, baina hobetu edo sakondu egin nahi dute, eta, inguruan horretarako aukerarik ez badute, Mintzaneten bidez egin dezakete». Eta guztia, musu truk: «Ikasi nahi duenak ez du ezer ordaintzen, eta horiei laguntzeko izena ematen dutenek ez dute ezer jasotzen trukean».

Mintzaneten parte hartzea, doakoa izateaz gain, oso erraza da: «Lehenengo, Mintzaneten webgunean sartu —<http://www.mintzanet.net>—, eta izena eman be-

har da. Galdetegi bat bete behar da gero». Izen-abizenak eta beste-lako datu batzuek gain, garrantzitsuena erabiltzaileak zein egunean eta zein orduan hitz egin nahi duen adieraztea da: «Hala, erabiltzailearekin hitz egingo duen beste pertsona bat bilatuko dugu: zein zeinekin elkar dezakegun aztertzen dugu, betiere, ordu-tegi horiek errespetatuz».

Saio laburrak dira, edonoren egunerokoa aldaketa edo traba ez izateko: «Orokorrean, hamabost edo 30 minutuko saioak dira, baina, erabiltzaileek aitortu digutenez, ia gehienetan, luzatu egiten zaie solasaldia, gustura egoten direlako». Erabiltzaileentzat eroso izango den zerbitzu izatea du helburu Mintzanetek, eta, alde horretatik, etxeko sofatik parte har daiteke: «Imajinatu donostiar batekin duzula hitzordua: ez duzu hara joan behar, etxetik hitz egin dezakezulako». Internet bidezko elkarrizketak direnez, Euskal Herritik kanpo daudenek ere parte har dezakete —erabiltzaileen %15 atzerrian daude—.

Tapiak bikote bakoitzaren egutegiak finkatzen ditu, eta erabiltzaile bakoitzak webgunean bertan kontsulta dezakete egutegi hori. «Ahal bada, bikoteak beti berdina izaten saiatzen gara, bestela nahasmendu handia da denentzat», azaldu du Tapiak.

Berrikuntzak izango ditu Mintzanetek gutxi barru: plataforma propioa garatzen ari dira, udan prest izateko asmoz. Saioei buruzko datuak ezin eskuratzea da Skypen desabantailatutako bat —zen-

bat saio egin diren, zenbat denbora iraun duten...—, baina ez bakarrik: «Erabiltzaile gehienak gazteak izan arren, batzuek 60 urte dituzte, eta ez dira oso ondo moldatzen Skypearekin; programa eroso eta erabiltterazago bat sortu nahi dugu».

Iazko Euskararen Egunean, abenduaren 3an, aurkeztu zuten Mintzanet, baina hilabete bat geroago, urtarrilean, jarri zen martxan: «Orduan hasi zen behar bezala, bidelagun eta bidelariekin».

Helburu nagusia euskara bultzatzea da: «Euskara gero eta jende gehiagok hitz egitea da asmoa». Aurkeztu zuten geroztik, 200 pertsona inguruk parte hartzen dute Mintzaneten. Dena den, bidelari eta bidelagunen artean desoreka dago: «Baditugu bidelagunak, eta pila bat eskertzen diegu egiten duten lana, baina gehiago behar ditugu».

### Lekuak identifikatzeko

Euskararekin lotutako beste proiektu bat da Mintzatu (<http://www.mintzatu.com>). Helburua erabiltzaileek Euskal Herrian eta nazioartean euskaraz hitz egiten duten denda, elkarte, taberna eta bestelakoak identifikatu eta sarean ikusgarri jartzea da. Hala, leku ezezagun batera joanez gero, euskaraz non hitz egiten duten jakin ahal izango dute Mintzaturen bidez, azkar batean. Sare soziala ere bada, izena emandako erabiltzaileekin harremanetan jartzeko aukera baitago.

Bulegoko kafe makinaren inguruan hasi zen dena, webgunea

garatu duen Irontec enpresako Iker Sagastik azaldu duenez: «Hainbat euskaldun daude enpresan, eta pentsatu genuen ondo legokeela euskaraz hartuko zaituzten lekuak zeintzuk diren jakiteko aplikazio bat edukitzea; orain arte ez zegoen halakorik».

### Plataforma berria garatzen ari dira Mintzanetentzat, erosoagoa izan dadin

### Android eta iOS telefonoetarako aplikazioak izango ditu Mintzatuk udan

Iaz jarri zuten martxan webgunea, Donostian egin zen Xare 2012 jardunaldian. Orain, Sagastik adierazi duenez, hobekuntza batzuk egingo dizkiote, eta, horrez gain, Android eta iOS telefonoetarako aplikazioak plazaratuko dituzte —ekainaren amaiera edo uztailaren hasiera aldean eskuragarri izatea espero dute—.

Erakundeek ere parte har dezaketzen arren, herritar arruntentzat pentsatuta dago Mintzatu: erabiltzaileek euskaraz egiteko aukera izan duen lekuaren argazki bat atera eta sarean jar dezake. *Check in* egitea deitzen zaio horri. Foursquare aplikaziotik hartu dute ideia, baina balio erantsia eman diote: ezaugarri linguistikoak dira, hiztunek euren hizkuntza non hitz egiten den erreferentziak izan ditzaten.

## Gatibu, Fermin Muguruza eta Obrint Pas, Donostiako Aste Nagusian

Euskal Herriko eta nazioarteko taldeak ariko dira Saguesen, abuztuaren 10etik 16ra bitartean


### Erredakzioa

Euskal Herriko eta nazioarteko musika taldeak arituko dira Donostiako Aste Nagusian Sagueseko taula gainean. Abuztuaren 10etik 16ra bitartean, Gatibu, Obrint Pas, Julieta Venegas eta Fermin Muguruza izango dira, besteak beste, Saguesen joko duten taldeetako batzuk.

Saguesen izan ohi dira Donostiako Aste Nagusiko kontzertu nabarmenenak. Hori dela eta, Donostiako Udaleko Kultura arduradun Nerea Txapartegik azaldu duenez, «estiloen eta taldeen arteko oreka eta aniztasuna» bilatu du udalak.

Auryn «boyband» talde arrakastatsua» izango da Sagueseko taulara igotzen lehena, abuztuaren 10ean. *Los Momentos* diskoa aurkeztuko du Julieta Venegasek hurrengo egunean. Betagarriren txanda izango da abuztuaren 12an, eta Gatiburena 13an. Riot Propaganda izenpean elkarrekin dabilzan Los Chicos del Maiz eta Habeas Corpus ariko dira abuztuaren 14an. Hurrengo egunean, Lainek eta Obrint Pasek joko dute. Fermin Muguruzaren Kontrakantxa izango da azkena.

Kontzertuez gain, Aste Nagusiaren kartel irabazlea ere aurkeztu dute. Toya Huercanos diseinatzaileak egin du: «Festen egitarauan baino gehiago, urtarotan jarri nahi nuen arreta: hala otu zitzaidan eguzkiaren eta hondartzaren bila zebilen hondarrezko panpina». Huercanosen lehendik hiru kartel lehiaketa irabazi zituen: 2002ko estropadana, 2003ko su festena eta 2004ko Aste Nagusiarena.



Kartel irabazlea. TOYA HUERCANOS